



# ARIN-ARIN

**Materiala:** Arin-arin fitxak, folioak edo arbeltxoak eta idazteko errotulkiak edo klarionak.

## Jokatzeko era:

Ikasleak taldeka banatuko dira.

Txandakatuz jolasten bada, aurretik ordena zozketatu behar da.

Lehenago, taldeko jolaskide batek txartel bat aukeratuko

du. Taldekideei zein gai tokatu zaien esango die eta keinuz eta mimikaz lagundu behar die gai horrekin erlazionatuta dauden hitzak

bilatzen. Taldekideek esaten dituzten hitzen artean, txartelean agertzen direnak bakarrik kontuan hartuko dira, puntuak emateko orduan.

Asmatutako hitz bakoitzeko puntu bat.

Talde guztiek aldi berean jolasten badute, bakoitzak folio edo arbeltxo bat izango du, gaiari dagozkion hitzak bururatu ahala idazteko. Emandako denbora agortzen denean, idatzi dituzten hitzetatik txartelean zenbat dauden begiratu behar da.

Asmatutako bakoitzeko, puntu bat.



## LORATEGIAN

Loreak

Belarra

Zuhaitza

Lorazaina

Eserlekua

